



**EEE/EVE TALDEARENTZAKO BIDAIA AGENTZIA BATEN  
ZERBITZUA KONTRATATZEKO, PROZEDURA IREKIAZ,  
ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN (EEE/EVE)  
KLAUSULA ADMINISTRATIBO BEREZIEN ETA  
BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA**

ESPEDIENTE ZENB.:

**ESG/10/002**

PROZEDURA IREKIA

Bilbo, 2010eko maiatzaren 27a  
José Ignacio Hormaeche Azumendi jn.  
EEE/EVEko zuzendari nagusia



## KARATULA

**ADJUDIKATZEKO ERA:** Lehiaketa irekia.

**ESPEDIENTE ZENB.:** ESG/10/002

### **A. KONTRATUAREN XEDEA**

Energiaren Euskal Erakundearen taldeko langileek egingo dituzten bidaiari laguntza teknikoa ematea, bidaiak programatzea eta kontratatzea, bidaiari agentzia baten parte hartzea eskatzen duten bidaiari kasuan, 2010/07/21etik 2011/12/31ra bitarteko epean.

Laguntza hori, nagusiki, hegazkinen eta trenen txartelei eta hotelei lotuta dago.

### **B. SAIL / ORGANO KONTRATATZAILEA**

EEE, honako helbide hau duena: Bizkaia plaza eraikina. Urkixo zumarkalea, 36 – 1. solairua. 48011 Bilbo.

- I.F.Z.: Q-5150001E
- Kontratazioaren sail arduraduna: EEE/EVE – Zerbitzu Orokorrak
- Telefonoa: 94-403.56.00
- Kontratatzailearen profila: [www.eve.es](http://www.eve.es)

### **C. KONTRATUAREN PREZIO BALIOETSIA**

- Kontratuaren prezio balioetsia: 155.000 € (BEZ gabe).

### **D. IZAPIDEAK**

Ohikoa.

### **E. PROPOSAMENAK JASOTZEKO EPEA**

Eskaintzak edo proposamenak 2010eko ekainaren 11ko 12:00ak arte jasoko dira.

### **F. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA**

Proposamenak Energiaren Euskal Erakundeko Giza Baliabideak eta Zerbitzu Orokorrak Sailean aurkeztuko dira, honako helbide honetan: Bizkaia plaza eraikina. Urkixo zumarkalea, 36 – 1. solairua. 48011 Bilbo.

### **G. BEHIN-BEHINEKO BERMEA**

Ez dagokio.

### **H. BEHIN BETIKO BERMEA**

Ez dagokio.

### **I. PREZIOEN BERRIKUSPENA**

Ez dagokio.

### **J. GAUZATZEKO EPEA ETA LEKUA / ZERBITZUAK EMATEA**

Epea: 2010/07/21etik 2011/12/31ra.

Lekua: Dokumentazioa eta txartelak Energiaren Euskal Erakundearen bulegoan emango dira, honako helbide honetan: Bizkaia plaza eraikina. Urkixo zumarkalea, 36 – 1. solairua. 48011 Bilbo..



**K. BERMEAREN EPEA**

Ez dagokio.

**L. PUBLIZITATEAREN GASTUAK**

Ez dagokio.

**M. ALDAGAIEN ONARPENA**

Ez dagokio.

**N. KAUDIMEN EKONOMIKOA, FINANTZARIOA ETA TEKNIKOA**

Kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa egiaztatzeko, Eusko Jaurlaritzak edo Estatuaren Kontratazio Administratiborako Aholku Batzordeak ematen duten egiaztagiria aurkez daiteke, zerbitzu enpresa gisa sailkatzen duena. Lehiaketa honetarako eskatzen den kalifikazioa hauxe da:

<b>U TALDEA:</b>	<b>"Zerbitzu Orokorrak"</b>
<b>04 azpitaldea:</b>	<b>"Bidaia Agentziak"</b>
<b>Kategoria:</b>	<b>B</b>

Egiaztagiri hori aurkeztu ezean, Plegu honen 8.5 klausulan adierazten den dokumentazioa aurkeztuko litzateke.

**O. ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK**

Esleipena erabakitzeke irizpide orokorrak hauexek dira:

<b>Irizpidea</b>	<b>Deskribapena</b>	<b>Puntuak</b>
	<b>B gutun-azala. Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideak</b>	<b>60</b>
	<p><b>Antolaketa eta bitartekoak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Agentziaren deskribapen orokorra eta emandako zerbitzuena.</li> <li>- Mintzakidetzarako gaitasuna nazioan eta nazioartean</li> <li>- Hitzartutako hotelen / hotel-kateen deskribapena</li> <li>- Hitzartutako hegazkin konpainiak (low cost-ak barne)</li> <li>- Nazioartean dituen ordezkariak eta bulegoak</li> <li>- Jendaurreko ordutegiak</li> <li>- Bitarteko teknikoak (telefono zerbitzua, posta elektronikoa, webgunea...)</li> <li>- Lan metodologia</li> <li>- Fakturatzeko era</li> </ul>	<b>18</b>
	<p><b>Mintzakidetzarako taldea eta bermea:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Enpresentzako berariazko saila edukitzea</li> <li>- Mintzakidetzarako pertsona arduraduna eta horretan arituko diren pertsonak</li> </ul>	<b>10</b>
	<b>Estaldura:</b> 24 orduko bidaia laguntza eta estaldura	<b>10</b>
	<b>Erantzuna:</b> EEE/EVEren eskakizunei edota larrialdietako egoerei arin erantzuteko ahalmena	<b>10</b>
	<p><b>Hobekuntzak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Teknikoak:</b> Agentziak eskaini ahal dituen eta pleguan ez dauden beste hobekuntza tekniko eta antolaketako batzuk</li> <li>- <b>Ekonomikoak:</b> Baldintza bereziak, deskontuak, etab.</li> </ul>	<b>12</b>



	<b>C gutun-azala. Formula matematiko bidez ebaluatu ahal diren irizpideak</b>	<b>40</b>
	<b>“Fee service” edo emisio zordunketa (€)</b>	<b>22</b>
	<b>Rappel (%)</b>	<b>18</b>
<b>GUZTIRA</b>		<b>100</b>

○ **“Fee service” edo emisio zordunketa (€) – Gehienez 22 puntu 100etik**

Aplikagarria izango den “fee service”, txartelaren arabera, hauxe izango da:

<b>Txartel mota</b>	<b>Gehieneko puntuak</b>
Hegazkin nazionala	9
Europako/Mediterraneoko hegazkina	9
Kontinentez gaindiko hegazkina	2
Autobusak/ Trenak / Ferryak.	1
Autoen alokairua	0.5
Beste batzuk	0.5

Puntuak era honetan esleituko dira:

$$\text{Lizitzailearen puntuak txartel motaren arabera} = \frac{\text{Lizitzaileak eskainitako fee service (€)}}{\text{Eskainitako fee service onena (€)}} \times \text{Gehieneko puntuak, txartel motaren arabera}$$

○ **Rappel (%) – Gehienez 18 puntu 100etik**

Urtearen amaieran, agentziak emango dituen zerbitzu eta produktu guztiei aplikatuko zaien deskontua edo hobaria da. Ehuneko deskontu hori une bakoitzean indarrean egongo diren prezio ofizialei aplikatuko zaie, kasuan kasuko tasak barne.

Puntuak era honetan esleituko dira:

$$\text{Lizitzailearen puntuak} = \frac{\text{Lizitzaileak eskainitako \%}}{\text{Eskainitako \% handiena}} \times 18 \text{ puntu}$$

**P. ZIGORTZEA**

Plegu honetan aurreikusten direnak.



**Q. LUZAPENA**

Ez dagokio.

**R. LANAK ZATIKA JASOTZEA**

Ez dagokio.

**S. PREZIOAREN ORDAINKETA**

Faktura aurkeztuta, 30 eguneko epean, Energiaren Euskal Erakundearen oniritzia izanez gero.

**T. HIZKUNTZA BALDINTZAK**

Kontratu hau Euskal Autonomia Erkidegoko 6. artikuluan eta azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean (euskararen erabilera arautzekoa) eta hura garatzen duen araudian xedatutako hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren menpe dago.

Bi hizkuntza ofizialak erabiltzea kontratuaren gauzatze baldintzetako bat da. Hala, bada, betetzen ez bada, kontratu honetako edozein klausula ez betetzeagatik aurreikusi diren ondorioak aplikatuko dira; ez bada, gauzatu beharreko kontratuak berezko dituen ezaugarriek eskatu egiten dutela nahitaez beste hizkuntza bat edo batzuk modu eskusiboan erabiltzea. Dena den, neurri horrek kontratuaren baldintza orrian edo pleguan agertu beharko du.



## OINARRIZKO BALDINTZAK

### 1. ARAUBIDE JURIDIKOA

#### 1.1. Kontratuaren araubide juridikoa:

- Oinarrizko Baldintzen Plegu honetan eta bere karatulan zehaztutakoa, baita Zehaztapen Teknikoan Txostenean jasotakoa ere. Horrekin batera, ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAK (“EEE/EVE”) onartutako Kontratatzeko Barne Jarraibideetan adierazitakoa (“KABI”) eta Kontratatzailearen Profilarren atalean argitaratua ([www.eve.es](http://www.eve.es)) eta esleipendunarekin sinatuko den kontratuan jasoko diren baldintzekin eta itunekin bat etorri.
- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen arabera (“SPKL”). Plegu honen klausuletan adierazten diren gaiak dagokienez, soil-soilik.
- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren arabera, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araubide Orokorra onartzen duena (aurrerantzean “HAKLEO”), aurreko puntuan azaldutako gaiak dagokienez.
- Zuzenbide Pribatuaren arauak aplikagarriak izango dira kontratuaren interpretazio, ondorio, betetze eta amaierari doazkien gaiak ebazteko.

#### 1.2. Lanak egiten arituko diren langileei dagokienez, enpresaburu kontratatzaileek bete beharko dituzte indarrean dagoen lan eta gizarte legeria.

#### 1.3. Kontratuaren edozein alderditako ezjakintasunak edo bertan bildutako dokumentuak eta eranskinak edo itundutakoa gauzatzean zerikusia izan dezakeen Administrazioak xedatutako arau, plegu eta aginduen gaineko ezjakintasunak ez du kontratista edo enpresaburua salbuetsiko kontratua betetzeko obligaziotik.

### 2. KONTRATUAREN HELBURUA

Kontratuaren helburua Plegu honen Karatularen “A” ATALEAN adierazia da.

Hori guztia zehaztapen teknikoekin bat etorri, Zehaztapen Teknikoen Txostenean jasoak. Plegu honetan jasoko dira Zehaztapen Teknikoak, 5. **eranskina**, eta betetzeko eska daitezke. Beraz, aipatutako txostena kontratuan sartuko da eta alde guztiek bete beharko dute.

### 3. BALIOESPENA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

a) Kontratu honen zenbatekoaren balioespena Plegu honen Karatularen “C” ATALEAN adierazitako zenbatekoa da. SPKLen 76. artikulua xedatutakoa kontuan hartu da, BEZ gabe.

b) Kontratuaren prezioa esleipenaren ondorioz aterako dena izango da, eta diru-sail independente gisa sartuko du BEZa.

Kontratuaren prezioan gainerako zergak, tasak eta era guztietako kanon aplikagarriak sartuta daudela ulertuko da, bai eta Plegu honetan bildutako betebeharrak betetzeak kontratistari ekarri ahal dizkion gastu guztiak ere (gastu orokorrak, finantzarioak, onurak, aseguruak, garraioa eta joan-etorriak, berarentzat lan egiten duen pertsonal teknikoaren ordainsariak, bisak, etab.).



c) Enpresa esleipendunak ordainduko ditu gainerako gastuak, kontratuan azaltzen diren lanak behar bezala egiteko, eta beraz, EEE/EVEk ez ditu ordainduko, 5. eranskinean ageri den Zehaztapen Teknikoen Txostenaren arabera.

#### **4. PREZIOEN BERRIKUSPENA**

Karatularen "I" **ATALEAN** zehazten dena beteko da.

#### **5. GAUZATZEKO EPEA**

5.1. Gauzatzeko epea Plegu honen Karatularen "J" **ATALEAN** adierazitakoa izango da.

Ezarritako epeak betetzeko behar diren aldian aldiko epeak eskaintzan ezarriko dira edo EEE/EVEk lan programan onartuko dituenak izango dira.

5.2. 5. eranskineko Zehaztapen Teknikoen Txostenean lanak egiteko epeak laburtzen edo jardueren ordenamendurako zatikako epeak ezarriz gero, ezinbestean bete beharko lirateke, horrela eskaintzen edo ezartzen badira, hurrenez hurren.

5.3. Karatularen "Q" **ATALEAN** hala aurreikusten baldin bada, kontratua amaitutakoan, alde guztien oniritziarekin, kontratua luza daiteke. Luzatzekotan, epea ez litzateke karatularen "J" **ATALEAN** aurreikusitakoa baino luzeagoa izango.

#### **6. ADJUDIKATZEKO ERA**

6.1 EEE/EVEk kontratatzeke dituen barne arauak (KABI) aplikatuko zaizkio kontratu honi esleitzeko orduan.

Kontratua prozedura irekiaren bidez esleituko da, eta esleipena honako fase hauei jarraituz egingo da:

(i) lehen fasean ("*Eskaintzen aurkezpena*"), interesatutako lizitatzailerak dokumentazio orokorra (A gutun-azala) eskaintza ekonomikoak (B gutun-azala) eta teknikoak (C gutun-azala) aurkeztu ahal izango dituzte;

(ii) bigarren fasean ("*Kontratatistaren hautaketa*") lizitatzailerak aurkeztutako eskaintzen aztertu ondoren, EEE/EVEk kontratua formalizatzeko lizitatzailera hautatuko du; eta

(iii) hirugarren fasean ("*Formalizazioa*"), EEE/EVEk eta hautatutako lizitatzailerak kontratua sinatuko dute.

6.2 EEE/EVEk eta kontratatistak men egingo diote informazioaren konfidentziasuna babesteko obligazioari, KABlen 6.(d) atalean ezarritako moduan.

6.3 Kontratazio-organoa "B" **ATALEAN** azaldutakoa izango da.

6.4 Kontratazio-organoari laguntzeko, kontratazio-mahaia edo organo baliokideren bat era daiteke, eta hauxe arduratuko da parte-hartze eskaerak kalifikatu eta eskaintzak baloratzeaz.

#### **7. PROPOSAMENAK AURKEZTEA**

7.1 Proposamenak aurkezteko epea zabalik egongo da 2010eko ekainaren 11ko hamabiak (12:00) arte.



- 7.2 Proposamenak honako helbide honetara bidali beharko dira: Bizkaia plaza eraikina, Urkixo zumarkalea, 36. 1. solairua. 48001 BILBO.
- 7.3 Lizitatuzaileak postaz bidaltzen badu eskaintza, bidalketa posta-bulegoan zer egunetan egin zuen kreditatu beharko du, eta kontratazio-organoari jakinarazi beharko dio, egun bertan, eskaintza bidali duela. Ez badira bi baldintza horiek betetzen edo bidali izanaren jakinarazpena baldintza honetan adierazitako gehienezko epea igarota egiten bada, ez da eskaintza onartuko.
- 7.4 Espainiako nahiz atzerriko pertsona fisiko nahiz juridikoek aurkez ditzakete proposamenak, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa kreditatzen badute. Halaber, ezaugarri hori kredita dezakete zerbitzu-enpresatzat sailkatuta daudela egiaztatzen badute, Eusko Jaurlaritzak edo Estatuko administrazio-kontratueterako kontsulta-batzordeak emandako ebazpen bidez. Ildo horretatik, karatulako **"N" ATALA** bete behar dute proposamen-egileek.
- 7.5 Proposamenak aurkez ditzakete, halaber, enpresari-taldeek, aldi baterako elkartek osatzen badituzte, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 48. artikulua araututako moduan. Enpresa-taldeko enpresariak beren jardute-gaitasuna eta kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionala kreditatu behar dute agiri honetako baldintzek xedatu moduan, eta, horrez gain, agiri pribatu batean adierazi beharko dituzte beren izenak eta egoera profesionala, zer-nolako partaidetza duten elkartean eta, kontratua indarrean den bitartean, zer pertsona edo entitatek ordezkaturiko dituen, ordezkapen-ahalmen osoz, EEE/EVEren aurrean. Enpresari horiek guztiak aldi-baterako enpresa-elkarte gisa eratzeko konpromisoa hartu beharko dute, HAKLEOko 24. artikulua xedatutako moduan. Enpresa-elkarteko kide diren enpresetako ordezkari guztiak izenpetu behar dute adierazitako agiria.
- Parte hartzeko zerbitzu-enpresa izatea eskatuko balitz, ezinbestekoa izango da, sailkapenak metatu ahal izateko (HAKLEOko 52. artikulua), aldi baterako elkarteko enpresa guztiak izatea beren esku zerbitzu-enpresen sailkapena.
- 7.6 Lizitatuzaileen proposamenetan adierazten diren lizitazio-tipoak, haiek kontratuaren esleipenerako zenbateko zehatz eta jakinetan adierazten diren heinean, bere baitan jasoko dituzte, indarreko araubideari jarraituz, haiei aplikatzekoak diren zerga guztiak. Horren salbuespena BEZa izango da, hura aparteko kontu-sailtzat jasoko baita.
- 7.7 Interesatuak, hala nahiko balute, intereseko dokumentazioa azter dezakete, EEE/EVE erakundeko kontratatzailearen eskakizunean edo profilean lizitazio hau argitaratzean adierazten den lekuan.
- 7.8 Lizitatuzaileek ezingo dute proposamen bat baino gehiago aurkeztu, baina aurkeztutako proposamenek egokitzat irizten dituzten soluzio-bariante guztiak jaso ditzakete; betiere, baldintza-orri honetako karatulako **"M" ATALEKO** eskakizunak eta baldintzak betetzen badituzte.





7.9 Lizitatzailleek ezingo dute beste enpresa batzuekin proposamenik izenpetu, baldin eta aurrez banakako enpresari gisa proposamenik egin badute (xedapen horren salbuespen bakarra izango da lote bat baino gehiago izatea eta proposamenak lote bat baino gehiagorako aurkeztea). Printzipio hori urratuz gero, ez dira onartuko enpresariak egindako proposamen guztiak, eta, ildo horretatik, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 129.3 artikulua arautzen duena beteko da.

Adierazitakoa betetzekoa izango bada ere, lizitatzailleek aukera izango dute, kontratuak lote bat baino gehiago baditu, bai kontratu-xede osorako eskaintza bat egiteko (eskaintza hori banakatu egingo da lote bakoitzerako) edo lote bat edo batzuetarako eskaintzak egiteko.

7.10 Dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz idatzita aurkeztu behar da. Atzerriko enpresek hizkuntza horietakoren batera itzulita aurkeztu behar dute dokumentazioa.

7.11 Eskaintzarik eginez gero, enpresariak baldintzarik gabe onartuko dituzte baldintza-orri edo Plegu honetako klausula guztiak, eta eskaintza horri ardurapeko adierazpen bat erantsiko diete, EEE/EVEekin kontratatzeko baldintza guztiak betetzen dituztela esanez.

7.12 Lehiaketatik kanpo geratuko dira, EEE/EVEk behar bezala arrazoitu eta gero, honako egoera honetan leudekeen proposamenak:

- a) Proposamenak epez kanpo aurkeztea.
- b) Eskatutako gaitasun profesional edo enpresariala ez aurkeztea.
- c) Plegu honetan eskatzen den kaudimen ekonomiko, finantzario, teknika edo profesionala ez aurkeztea.
- d) Proposamen ekonomiko batzuk aurkeztea, bakarka edo aldi baterako beste enpresa lizitatzaille batzuekin batera.
- e) Plegu honetan edo zehaztapen teknikoen pleguan eskatzen diren baldintzak ez betetzea.
- f) SPKLe eskatzen dituen baldintzak ez betetzea.

## **8 PROPOSAMENEN EDUKIA**

8.1 Lizitatzailleek hiru gutun-azal aurkeztuko dituzte, eta, horietan guztietan, datu hauek adieraziko dituzte: lizitatzaillearen izen-abizenak edo enpresaren izena; gaia adierazteko, espedientearen erreferentzia-zenbakia adieraziko dute; eta, kontratu-xede adierazteko, baldintza-orri honetako karatularen "**A**" **ATALEAN** adierazitakoa zehaztuko dute.

8.2 Hiru gutun-azalak helbide honetara bidaliko dira: Bizkaia plaza eraikina, Urkixo zumarkalea, 36 - 1. solairua, 48011 BILBAO. Baldintza-orri honetako karatularen "**E**" **ATALEAN** adierazitako epean bidali behar dute, eta/edo, hala adierazten bada, lizitazio-iragarkian zehaztutako epean.



“Gaiari” dagokion epigrafean, hau adieraziko da gutun-azal bakoitzean:

- **“A” gutun-azala:** “Lizitazio-espedientearen zenbakia: dokumentazio administratiboa”
- **“B” gutun-azala:** “Lizitazio-espedientearen zenbakia: iritzi bidezko irizpide ebaluagarriak”
- **“C” gutun-azala:** “Lizitazio-espedientearen zenbakia”

8.3 Baldintza-orri honetako 8.5. atalean zehaztutako agiriak jasoko ditu **“A” gutun-azalak**; 8.6. atalean zehaztutakoa **“B” gutun-azalak** eta, azkenik, 8.7. atalean zehaztutakoa jasoko du **“C” gutun-azalak**.

8.4 Proposamenak entregatuz gero, lehiatzaileek onartu egin beharko dute lizitazioa, baldin eta esleipendun suertatzen badira. Proposamena aurkeztu ondoren, ezingo da hura erretiratu, baldin eta EEE/EVEk uste badu badagoela horretarako arrazoi justifikaturik.

#### 8.5 **“A” gutun-azala: Dokumentazio administratiboa.**

- EEE/EVEko sarrera-erregistroan aurkeztuko da dokumentazio hori, gutun-azal itxi baten barruan. Gutun-azalean, espediente-zenbakia adieraziko da, eta, horrez gain, baldintza-orri honen karatulako **“A” ATALEAN** adierazitako deskribapena idatziko da, “Dokumentazio orokorra” dela iragarriz.
- Dokumentazio administratiboaren atalean, Eusko Jaurlaritzako kontratisten erregistroan erregistratuta dauden lizitatuak eta Estatuko lizitatuak eta enpresa sailkatuen erregistro ofizialean erregistratuta daudenean nahikoa izango dute erregistratuta izatearen ziurtagiriaren kopia aurkeztea. Horrekin batera, ardurapeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute, erregistroan adierazitako datuak baliozkoak direla eta indarrean daudela bermatuz.
- Adierazitako erregistroetan erregistratuta ez dauden enpresariak, sarrera-erregistroa agertu, eta agiri hauek erantsi beharko dituzte **“A” gutun-azalean**:
  - a. Proposamena aurkezten duen pertsonaren nortasun agiri nazionala edo haren baliokide den agiri fede-emailea, eta beste pertsonaren baten izenean agertzen edo proposamenak izenpetzen dituzten pertsonen, berriazko ahalorde askietsia ere aurkeztu behar dute.
  - b. Pertsona juridikoak diren enpresarien jarduteko gaitasuna kreditatzeko, haien eraketa-eskritura edo aldaketakoa aurkeztu behar dute. Eskritura horrek merkataritza-erregistroan inskribatuta egon beharko du, baldin eta hari aplikagarri zaion merkataritza-legeadiak hala eskatzen badu. Hala ez balitz, jarduteko gaitasuna kreditatzeko, eraketaren eskritura edo agiria, estatutuak edo sorrera-egintza aurkeztu beharko dituzte. Bertan, jarduera arautzeko arauak agertu beharko dira, eta behar bezala inskribatuta egon beharko dira kasuan kasuko erregistro publikoan.



- c. Jarduteko gaitasuna kreditatzeko, kontratatzeko adina ahalmen ematen duen ahalorde askietsia aurkeztu beharko dute, aurreko atalean xedatutakoa betez.
- d. Ardurapeko adierazpena, ahalmentutako pertsona batek izenpetua, eta behar bezala adieraziko duena enpresariak ez duela Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 49.1. artikuluan araututako debeku, ezgaitasun edo bateraezintasuneko kausarik betetzen. Alderdi hori kreditatzeko, beteta eta izenpetuta aurkeztuko dituzte baldintza-orri honetako 2. Eranskina.

Adierazpen horretan, berariaz azaldu beharko dute egunean betetzen dituztela zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak. Horrez gain, hautatutako enpresaburuak alderdi horiek betetzen dituela kreditatu beharko du kontratua formalizatu baino lehen.

- Baldintza-orriko karatulako "**G**" **ATALEAN** hala jasotzen bada, abal bat eratu izanaren agiria aurkeztu beharko da. Behin-behineko bermea izango da abal hori, eta atal horretan adierazitako zenbatekoa izan behar du. Hautatutako enpresariak kontratua formalizatzen duenean, amaitu egingo da behin-behineko bermearen indarraldia, eta itzuli egingo zaie hura hautatuak izan ez diren lizitatzailerei.
- Lizitatzaileren kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoari dagokionez, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

#### Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa

1. Finantza-erakundeen txostena, edo, haren ezean, arrisku profesionalen kalte-ordainerako aseguru bat izatearen frogagiria.
2. Urteko kontuak, merkataritza-erregistroan edo dagokion erregistro ofizialean aurkeztutakoak. Kontuak erregistro ofizialetan aurkezteko obligaziorik ez duten enpresariak, bestalde, kontabilitate-liburuak aurkez ditzakete, behar bezala legeztatuta.
3. Negozioen bolumenari buruzko adierazpena, edo haren ezean, kontratu honi lotutako jarduerekin zerikusia duten jardueren negozioaren bolumenarena, azken urtean izandakoen datuei dagokienez.

#### Kaudimen teknikoa edo profesionala

1. Azken 3 urtean, honen antzeko ezaugarriekin emandako zerbitzu nagusien zerrenda; baita zerbitzu horien zenbatekoak, datak eta izandako onuradunak ere.
2. Esleipen honen lanak egiteko lan-taldearen deskribapena, alor horretan langileen gaitasuna eta esperientzia azalduz.

Behar bezala arrazoitutako kausak direla medio, enpresariak ezingo balitu eskatutako erreferentziak eman, bestelako dokumentazioa balia dezake bere kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa kreditatzeko, baldin eta EEE/EVEk egokitzen jotzen badu egiaztapen-bide hori.



- Kaudimena kanpo-baliabideekin integratzea  
Kontratu hau egiteko nahiko kaudimena duela egiaztatzeari begira, kontratista beste erakunde batzuen kaudimen eta bitartezkoez balia daiteke, erakunde horiekin izango dituen harreman juridikoak edozein direla, betiere kontratua gauzatzeko erabiliko direla egiaztatuz.

Kontratua gauzatu ahal izateko kontratistak bitarteko horiek izango dituela egiaztatze aldera, eta azpikontratistek egingo dituzten lanen zatiek ez dutela kontratuaren prezioaren %50 baino gehiago izango, azpikontratazioari buruzko konpromisoa erantsi beharko da, honako baldintza hauekin:

- a) Hasieran dokumentu pribatuan aurkeztu ahal izango da. Hala ere, enpresa behin-behineko esleipenduna izango balitz, eskritura publikoan dokumentatuko litzateke.
  - b) Azpikontratatzeko asmoa duen kontratuaren zatia eta kontratuaren prezioaren aldean zer ehuneko den adierazi beharko dira.
  - c) Kontratuaren esleipenduna izanez gero, azpikontratatu dituen enpresen eskura behar beste baliabide jarriko ditu kontratuaren zati hori egiteko.
  - d) Etorkizuneko azpikontrata izenaren bidez identifikatuko da, edo enpresa profilaren bidez. Geroago, esleipendunak beste enpresa batzuk azpikontratatu nahi baditu, SPKLen 210.2 artikulua a) eta c) letretan xedatutakoa beteko ditu.
- Espainiarrak ez diren Europar Batasuneko enpresek eta gainerako enpresa atzerritarrek horrela kreditatu behar dute beren jarduteko gaitasuna eta kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionala:
    1. Gaitasuna
      - Espainiarrak ez diren Europar Batasuneko herrialdeetako enpresek edo Europako Eremu Ekonomikoari buruzko Ituna izenpetu duten herrialdeetako enpresek nahikoa izango dute erregistroan inskribatuta daudela kreditatzea edo HAKLEOko I. eranskinean adierazten diren ziurtagiriak aurkeztea.
      - Gainerako enpresa atzerritarrek,
        - Haien herrialdeek Espainian duten misio diplomatiko iraunkorrak edo kontsul-etxeak emandako txostena aurkeztu behar dute. Txosten horrek behar bezala kreditatu beharko du, enpresak hala frogatu ondoren, lanbidezko, merkataritzako edo dagokion alorreko toki-erregistroak inskribatuta daudela, edo, horretarako obligaziorik ez balute, ohikotasunez lan egiten dutela, tokiko lan-eremuan, kontratuaren xedeari dagokion jarduera-esparruan.
        - Horrez gain, enpresaren jatorriko herrialdeak Espainian duen Misio Diplomatiko Iraunkorrak edo Ekonomia Ministerioko Kanpo Merkataritzako Idazkaritza Orokorrak emandako txosten bat aurkeztu behar dute. Txosten horretan, dagokion herrialdeak Merkataritzako



Mundu Erakundeak kontratazio publikoari buruz adostutako ituna izenpetu duela adierazi behar da.

- Enpresak Espainian sukurtsal bat irekia duela kreditatzen duten agiriak, eta, horietan, zehaztuko da zer ahaldun edo ordezkari dituzten izendatuta enpresa-eragiketarako, eta merkataritza-erregistroan inskribatuta daudela.

2. Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, teknikoa edo profesionala: Klausula honetako aurreko ataletan adierazitako moduan kreditatuko da. Europar Batasunean ez diren enpresa atzeritarrek kreditatu egin behar dute, baldintza hori Espainiako enpresei eskatzen bazaie, sailkatuta daudela, baldintza-orri honetako Karatularen "**N**" **ATALEAN** xedatutako moduan.

- Lizitazioan parte hartzeko, zenbait enpresarik aldi baterako enpresa-elkartea eratzen badute, enpresa bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, aurreko puntuetan adierazitakoaren arabera, eta, kasuan betetzeko bada, SPKLko 56.5 artikulua kontratisten sailkapenari buruz arautzen duena aplikatuko zaie.

Lizitazioa enpresa-elkarteari esleitzen bazaio, kontratazio-organoari kreditatu behar zaio enpresa-elkartea eskritura publiko batean eratu dela, eta ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko da. Ordezkari horrek nahikoa ahalmen izan behar du kontratutik eratorritako eskubideak erabili eta obligazioak betetzeko, harik eta kontratua amaitzen den arte. Enpresa-elkarteen iraupenak bat etorri behar du kontratuaren iraupenarekin, harik eta azken hori amaitzen den arte.

- Enpresen langilerian ehuneko bikoia edo handiagoa bada ezintasunak dituzten langileen ehunekoa, berariaz emandako ziurtagiri bidez edo agiri egokiz frogatu beharko da baldintza hori betetzen dela, baldin eta enpresek SPKLko seigarren xedapen gehigarriak eta Osasun eta Kontsumoko Ministerioak 2001eko abenduaren 17an emandako Aginduak xedatutakoaz baliatu nahi badute.

#### 8.6 "**B**" gutun-azala: Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideei lotutako dokumentazioa.

Zehaztapen Teknikoen Txostenean eta baldintza-orri honetako "**O**" **ATALEAN** adierazitakoa esleipen-irizpideak baloratzeko behar den dokumentazio guztiak jaso behar dute lizitatuzaileek gutun-azal honetan.

B gutun-azalak ez du edukiko, inola ere, lizitatuzaileak eskaintzen dituen baldintza ekonomikoak edo prezioa. Eskakizun hori ez betetzeak eskaintza bazter uztea ekarriko du.

Adierazitako agiri horietakoren bat faltako balitz edo ez badira zorrotz betetzen aurreko ataletan adierazitako alderdiak, eskaintza bazter uzteko aukera izango da.



### 8.7 "C" gutun-azala: Formula matematiko bidez ebaluatu ahal diren irizpideak

Baldintza-orri honetako 1. ERANSKINEAN jasotako proposamen-ereduari jarraituko zaio eta Zehaztapan Teknikoen Txostenean adierazitakoa beteko da. Aparteko kontu-sail batean jasoko da balio erantsiaren gaineko zerga.

Proposamen ekonomikoa bide mekanizatuak erabiliz idatziko da eta izenpetuta aurkeztuko da; horiek horrela, ez dira onartuko gabeziak edo akatsak dituzten proposamenak, ezta eskaintzaren edukia zein den argitasunez jakitea eragotz dezaketen marraketak dituztenak. Alderik balego zenbakiz eta idatziz jasotako zenbatekoen artean, azken hori gailenduko da. Lizitatzailleek ezingo dute, SPKLeko 129. eta 131. artikuluei jarraiki, proposamen bat baino gehiago aurkeztu, baina aurkeztutako proposamenek egokitzat irizten dituzten soluzio-bariante guztiak jaso ditzakete; betiere, baldintza-orri honetako Karatularen "M" **ATALEKO** eskakizunak eta baldintzak betetzen badituzte. Bariante bat baino gehiago aurkeztuz gero, bariante bakoitzari dagokion proposamen ekonomikoa aurkeztu behar du lizitatzailleak.

## 9 PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA AZTERTZEA

- 9.1 Proposamenak aurkezteko epea amaituta, lizitatzailleek aurkeztutako dokumentazioa kalifikatuko da.
- 9.2 SPKLen 144.1 artikulua xedatutakoa ez da aplikagarria izango, izaera armonizatua duten kontratuei lotutako proposamenen irekieraz.
- 9.3 Eskatutako dokumentazio administratiboa faltako balitz edo aurkeztutako agiriak akastunak badira, ez da onartuko lizitatzailleak egindako proposamena. Proposamenak akats materialak balitu, HAKLEOko 81. artikulua araututakoa beteko da, eta hiru (3) egun balioduneko epea emango da haiek zuzentzeko. Faxe erabiliko da izapide honen berri emateko; zehazki, lizitatzailleak eskaintzan adierazitako fax zenbakia.
- 9.4 Baztertu egingo dira gaitasuna eta/edo kaudimen ekonomiko eta finantzario nahiz tekniko edo profesionala baldintza-orri honetan adierazitako moduan kreditatu ez duten lizitatzailleak, bai eta, kasu horretan badaude, zerbitzu-enpresen sailkapena kreditatu ez dutenak ere.

## 10 ESKAINTZA HAUTATZEKO OINARRIZKO IRIZPIDEAK

- 10.1 Lehiaketa esleitu gabe uzten ez badu, esleipena ekonomikoki abantailatsuena den proposamenari egiteko aukera izango du EEE/EVEk, eta, horretarako, ez du, ezinbestean, haren balio ekonomikoari erreparatu behar.
- 10.2 Baldintza-orriaren karatulako "O" **ATALEAN** adierazitako oinarrizko balorazio-irizpideak baliatuko dira eskaintzak baloratzeko.
- 10.3 Irizpide gehigarri gisa, baldin eta horrela ezarri bada, eta proposamen ekonomikoei dagokienez, positibotzat joko dira lanak egiteko eta epeak betetzeko bermeak aurkezten badira.



- 10.4 Ildo horretatik, proposamen ekonomikoa ez da izango, berez, erabakigarria, baina esleipen-erabakiaren joera izango da, lehiaketako eskaintzei erreparatu ondoren, egin beharreko lanen arrazoizko baliora gehien gerturatzeko diren eskaintzak hautatzea.
- 10.5 Proposamena beherapen ausartegizat hartzen bada, HAKLTB-ren 136 eta 174.1. artikulua eta Lege hori garatzen duen Erregelamenduaren 85. artikulua xedatutakoa beteko da.
- 10.6 Esleipenerako oinarri diren irizpide objektiboak aztertu ondoren, bi lizitatzaileraren edo gehiagoren artean berdinketa balitz, enpresa hau aukeratu da: kaudimen teknika kreditatzeko unean, lan-plantillan ezintasunak dituzten langileen kopurua langile guztien ehuneko bikoia edo handiagoa duena.

## **11 ENPRESABURU ESLEIPENDUNA AUKERATZEA**

- 11.1 EEE/EVERen iritziz, eskaintza ekonomiko abantailatsuen nork egin duen hautatu ondoren, lizitatuak guztiei emango zaie erabaki horren berri, erabaki hori kontratatzailearen Profilean argitaratuz.
- 11.2 Eskaintzak baloratu eta enpresaburu esleipenduna hautatzeko gehieneko epea hamabost (15) eguneko izango da, proposamenak aurkezteko epea amaitzen den egunetik aurrera. Epe hori igaro ondoren, erabakia jakinarazi ez bada, lizitatuak, egoki irizten badute, beren proposamenak erretiratzeko asmoa dutela jakinaraz dezakete.
- 11.3 Formalizazio-unean perfektionatu da kontratua, baina formalizazio-egintza burutu baino lehen, zenbait agiri aurkeztu behar dizkio EEE/EVERi hautatutako enpresaburuak. Horretarako, 10 egun balioduneko epea izango du gehieneko, agiri horiek eskatzen zaizkion unetik aurrera. Hauek dira agiriok:
- a) Zerga alorreko betebeharrak
    - Ziurtagiri positiboa, Zerga Administrazio Estatuko Agentziak ematen duena, zergak ordainduta dituela adierazten duena, edo aurkeztu beharrik ez duela.
    - Ziurtagiri positiboa, foru-aldundiak edo, enpresaren lurralde-esparruari erreparatuta, zerga-administrazio estatu-agentziak emandakoa, zerga-betebeharrak egunean betetzen dituela adierazten duena, eta/edo toki-erakundeak emandako ziurtagiria, hari dagozkion zergak egunean betetzen dituela adieraziz.
  - b) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak: Gizarte-segurantzarekiko obligazioak egunean betetzen dituela kreditatzen duen ziurtagiri positiboa; edo, halakorik ezean, dagokion mutualitateko alta-agiria.
  - c) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga: Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren alta-agiria edo zerga horretako azken erreziboa aurkeztu behar du, eta, horrekin batera, ardurapeko adierazpen bat aurkeztuko du. (4. ERANSKINA) zerga horretan baxerik ez duela hartu azalduz. Zerga hori



ordaintzetik salbuetsita egonez gero, hori justifikatzeko agiria aurkeztuko litzateke.

d) Aseguru enpresak egiaztatuta, aseguru guztien egokitzapena, estaldura eta indarrean dauden dokumentuak, Plegu honen 22. atalean jasotzen diren baldintzen arabera.

e) Behin betiko bermea eratu izanaren frogagiria, baldin eta betebehar hori finkatu bada karatulako **"H" ATALEAN**. Sektore publikoko kontratuen legeko 84. artikuluan adierazitako bideak erabiliko dira bermea eratzeko.

f) Beste dokumentazio bat. Kontratatzeko gai den edo dituen baliabideak egiaztatzeko baliagarriak izan daitezkeen gainerako dokumentuak.

EEE/EVEko sarrera-erregistroan aurkeztu behar dira agiri horiek guztiak.

## **12 KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA**

12.1 EEE/EVEk bere gain hartzen du eskaintzaren edukia egiaztatzeko gaitasuna, bai eta kontratuaren formalizazioaren aurretiko dokumentazio administratiboa egiaztatzekoa ere.

12.2 Kontratuaren formalizazioa enpresariari bere eskaintza onartua izan dela jakinarazi ondorengo egunean hasiko da, eta hamabost (15) egun naturaleko epean egingo da.

12.3 Kontratuaren formalizazioaren bitartez, EEE/EVEk kontratuzko onarpena adierazten du eta modu horretara, kontratua perfektionatzen da.

12.4 Kontratuak bere baitan bilduko ditu EEE/EVEk kontratatzeke dituen barne jarraibideetan jasotzen diren aipamenak.

12.5 Kontratua ezin izango da formalizatu enpresariak baldintza-orri honetan zehazten diren dokumentu guztiak aurkezten ez baditu. Kontratua enpresariari egotz dakizkion arrazoiengatik formalizatuko ezin balitz, EEE/EVEk behin-behineko bermea konfiskatzeko eskubidea izango du, horrelakorik izango balitz. Behin-behineko bermerik ez balego, enpresariak EEE/EVEri kalte-ordaina eman beharko dio. Kalte-ordaina gehienez ere kontratuaren aurrekontuaren ehuneko hirukoa izango da.

12.6 Kontratua dokumentu pribatuan formalizatuko da, eta formalizazio horretatik eratorritako gastu eta zerga guztiak hautatutako enpresariak ordaindu beharko ditu.

12.7 Kontratua enpresa-talde bati esleituz gero, enpresa horiek talde horren eraketa frogatu beharko dute eskritura publiko baten bitartez eta kontratuaren formalizaziorako zehaztutako epean. Enpresa-taldeari emandako IFZ ere aurkeztu beharko dute.





12.8 Esleipendunak isilean gorde beharko ditu kontratua dela eta ezagutuko dituen eta kontratuarekin zerikusia duten ezkutuko datu eta aurrekari pribatuak.

### **13 KONTRATUA GAUZATZEA**

- a) Kontratua klausula eta pleguetan ezarritakoari atxikita beteko da, eta kontratazio-organoak, honen ordezkariak edo kontratuaren arduradunak kontratistaren esku utz ditzakeen interpretazio jarraibideen arabera.
- b) Kontratua kontratistaren arrisku eta zoriaz beteko da.
- c) Kontratistak bere gain hartuko du garatutako lanen eta burututako eginkizun eta zerbitzuen kalitate teknikoaren ardura, baita EEE/EVErentzat edo hirugarrenentzat kontratua betetzean gerta daitezkeen hutsegite, akats, metodo desegoki edo ondorio okerrek eragindako ondorioen erantzukizuna ere.
- d) Kontratua behar bezala betetzeko, kontratistak konpromisoa hartzen du informazio osagarria eta laguntza teknikoa emateko (dokumentuak eta mota guztietako informazioa).
- e) Lanak egiten diren bitartean, kontratuaren aplikazio zuzenaren eta istripu edo kalteen, pertsonen, materialei eta hirugarrenei gerta dakizkienak, ardura kontratistarena izango da
- f) Kontratua indarrean dagoenean eta kontratua amaitu ondoren, kontratista derrigorputa dago isilpeka gordetzera kontratuaren helburuekin zerikusia duten datu eta aurrekariak, bereziki jakinak eta agerikoak ez direnak, baita kontratua bete ahala ezagut ditzakeenak ere.
- g) EEE/EVEk ez dio ordainduko kontratistari kontratuan zehaztuta ez dagoen ezein lan edo kontratazio-organoak edo kontratuaren arduradunak aldeztu aurretik baimendu ez duen ezein lan.

### **14 KONTRATUAREN ALDAKETA**

- a) Ezustekoei eta egoera berriei aurre egin ahal izateko EEE/EVEk zerbitzu-kontratua aldatzeko gaitasuna izango du, baina aldaketa horrek ezin izango du hasierako kontratuaren ehuneko 20a gainditu. Kontratistak derrigorrean onartu behar ditu aldaketa horiek. Aldaketek, kasu bakartuetan edo bere osotasunean ehuneko hori gaindituz gero, kontratistak kontratua eten dadin eskatzeko eskubidea du. Kontratuzko aldaketen prezioa bi aldeek zehaztuko dute, bakoitzak bere prezioak ezarri eta horiek negoziatuz.
- b) Kontratistak ezin izango du inolako aldaketarik egin kontratuaren xedeari dagokionez, aldeztu aurretik adostasunez egin ez bada, eta hala badagokio, kontratazio-organoak ezarritako aurrekontuaren gainean.

EEE/EVEren oniritzia edo baimena ez duten aldaketek erantzukizuna ekarriko diote kontratistari, eta horiek eragin ditzakete gastuak kontratistaren kontura joango dira.



## **15 KONTRATUAREN LUZAPENA**

Baldintza-orri honetako Karatulan aurreikusten diren baldintzak betez luza daiteke kontratua.

Aurreikusitako luzapenak gertatuko balira, kontratuaren prezioa hasieran zehaztutakoa izango litzateke, baina, luzapeneko urte bakoitzean berraztertu egingo da aurreko urteari dagokion KPIren %85 aplikatuz. KPIa Estatistikako Institutu Nazionalak ezarritakoa izango da (SPKLen 78.3 art.).

## **16 PREZIOAREN ORDAINKETA**

Kontratistak EEE/EVEren adostasunarekin burututako eta emandako lanengatik ordainsaria jasotzeko eskubidea izango du, lanei dagozkien fakturak aurkeztuta.

Plegu honen Karatulan zehazten da prezioa nola ordainduko den.

Inola ere ezingo da ordainketarik egin kontratua formalizatu arte.

Kontratuaren arduradunak emandako berariazko baimena jaso ezean, kontratistak ez du egindako hobekuntzak kobratzeko eskubiderik.

Plegu honetan jasotzen den bezala, EEE/EVEk kontratistari ezarri ahal dion zigor ekonomikotik prezioa kentzeko eskubidea du.

## **17 EPEAK ETA BERANDUTZEAGATIKO ZIGORRAK**

a) Kontratista derrigortuta dago kontratua Plegu honetako Karatulan finkatutako epeetan gauzatzera; baita proposamen teknikoarekin batera aurkeztutako lan-plangintzan jasotzen dena ere.

b) Kontratista edozein epeetan berandutu egin dela jotzeko, ez da beharrezkoa izango EEE/EVEk alde aurretik ohartarazpenik egitea. Atzerapen horiei dagozkien zigorrak EEE/EVEk ezarriko ditu automatikoki.

c) Azken epea edo ezarri zatikako epeak amaitu eta kontratista berandutu egin bada berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla eta, EEE/EVEk %20ko zigorra ezar diezaioke adostutako azken prezioaren gainean.

Zigorren zenbatekoak ez du kanpo uzten EEE/EVEk kontratistaren berandutzeagatik sortutako kalte-galerak direla kausa eska dezakeen kalte-ordaina, ez eta EEE/EVEk kontratua suntsiarazteko duen eskubidea ere.

d) Era honetako zigorrak ezartzeko prozeduran kontratistari alegazioak egiteko aukera eman beharko zaio derrigorrez, kontratuaren arduraduna entzun ondoren.

## **18 KONTRATISTAK KONTRATUA AKATSEZ BETETZEA EDO ZATIKA BETE GABE UZTEA**

EEE/EVEk zehaztuko du kontratistak egindako lana gauzatzeko eta betetze-aldiari begira ezarritako preskripzioekin bat datorren ala ez, eta behar izatekotan, kontratatutako zereginak bete ditzala edota harrera aldian igarritako akatsak konpon ditzala eskatuko dio.



Egindako lanak ez badatoz bat kontratatutako zereginekin, kontratistari egotz dakizkiokeen akatsak edo hutsegiteak medio, EEE/EVEk lan horiek errefusatu eta ordainketa egitetik salbuetsita geratzeko aukera izango du, eta horrekin batera, kontratua bera indargabetu ahal izango du, eta kontratistari, zigor gisa, adostutako azken prezioaren %20 eskatu ahal dio.

Zigor horien barruan ez daude, kalte-ordain moduan, EEE/EVEk jasotzeko eskubidea izan dezakeen diru kantitatea, kontratistak epeak eta beste ez betetzeagatik sor daitezkeen kalteen ondorioz.

## **19 KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK**

### **19.1 Lan arriskuen prebentzioa**

Esleipendunak bete eta bere ardurapeko langileei betearaziko dizkie lan legeriak arriskuen inguruan xedatutako arau guztiak; baita aplikagarria zaien Lan Ituna, eta bereziki, Lan Arriskuen Prebentzioaz diharduen azaroaren 8ko 31/1995 Legeak dioena bete eta betearaziko du.

### **19.2 Betebehar laboral eta sozialak**

a) Kontratistak, esleitu zaion lana egiteko kontratatzen dituen langileei dagokienez, indarrean dagoen gai laboralei buruzko araudia eta Gizarte Segurantzari, ezinduen integrazio laboralari eta lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudiak bete behar ditu. Gizarte-formazioarekin zerikusia duten azken araudi horien kasuan, azpikontratatuak –halakorik izanez gero– bere langileei dagokienez, indarrean dagoen gai laboralei buruzko araudia beteko duela ziurtatu behar du kontratistak.

b) Kontratista behartuta dago lana baldintza duinetan egiten dela bermatzera, bai bere enpresan, bai hark azpikontratutako enpresetan (halakorik izanez gero). Horrez gain, langileei dagokien sektoreko hitzarmenak beteko dira, batez ere pertsonalaren subrogazioari dagokionez.

c) Kontratu hau betetzeko aplikagarria diren heinean, kontratistak espresuki adierazi behar du higiene, segurtasun eta ingurumen alorreko araudi eta legeak bete eta betearazteko bitartekoak, gaitasuna eta ezagutza dituela, eta kontratua betetzean horrelako gaien inguruan gerta litezkeen erreklamazioei aurre egiteko konpainiak ez du inolako ardurarik.

d) Kontratistak bere menpeko langile guztiei babesteko ekipo homologatuak eman behar dizkie, kontratuan aurreikusten diren lanen segurtasunak edo arriskuak hala eskatzen badu, aplikagarria izan dakiokkeen lan arriskuak prebenitzeko planaren arabera. Horrekin batera, langile horiek ekipoak behar bezala erabiltzeko prestakuntza jaso dutela bermatu behar du.

e) EEE/EVEk hala eskatzen badio, kontratistak dokumentatuta egon daitezkeen betebeharrak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentu guztiak aurkeztuko dizkio.

f) Aurkezten ez badio edo justifikatu gabeko luzapena gertatzen bada, kontratuan ezarritako betebehar bat ez dela betetzen ulertuko da, eta, beraz, EEE/EVEk kontratua bertan behera uzteko eskubidea izango du, 26. klausulan edo atalean adierazten den moduan.



g) Lanei atxikitako beharginek kontratistaren menpe jardungo dute, eta honek enpresariari dagozkion eskubide eta betebeharrak izango ditu beharginen gainean.

h) Kontratua hau sinatzeagatik EEE/EVEk ez du inolako betebehar eta erantzukizunik izango gizarte eta lan betebeharren inguruan, legez kontratistak bere menpeko langileekin dituenak, alegia. Nolanahi ere, kontratistak konpromisoa hartzen du EEE/EVEri erreklamaziorik ez eskatzeko, haren langileek edo beste batek aipatutako betebeharrak izan ditzaketan arazoan aurrean.

i) Orokorrean, kontratistak aurre egin beharko die enplegatzaile gisa dagozkion betebeharrari, bai eta kontratistak edo honen azpikontratistek langileekin dituzten lan-harremanak edo bestelakoak erregulatu eta garatzen dituzten arauak betetzetik datozkienei ere, eta EEE/EVEri ez zaizkio leporatuko horietako edozein ez betetzeak sor ditzakeen isun, zigor edo bestelako erantzukizunak. Edozein kasutan, kontratistak oso-osorik ordainduko dio EEE/EVEri Plegu honetako betebeharrak ez betetzeak zehaztuta daukan kalte-ordaina, nahiz eta ebazpen judizial edo administratiboak ezarritakoa izan

j) Kontratua iraungita, ezin izango dira inola ere EEE/EVEko langile bihurtu kontratuan zehaztutako zereginetan jardun duten beharginak.

k) Kontratistari egokituko zaizkio, eta bere kontura joango dira, kontratua betearazteak ekarri ahal dizkion kostu guztiak.

### **19.3 Ingurumenari buruzko betebeharrak**

Kontratistak eta bere ardurapeko azpikontratek egingo dituzten lan guztietan saihestuko dituzte kalte edo eragin kaltegarria ingurumenean, animalietan eta landaretan, eta egin beharreko lanen ondorioz eragingo diren gorabehera edo kalteak ekiditeko edo murrizteko erabaki edo neurri guztiak hartuko ditu.

Ingurumen alorrean agintari eskudunek emandako eta ezarritako lege, araudi eta gomendio guztien arabera egingo ditu lan guztiak kontratistak. Horretaz gain, EEE/EVEk eman ditzakeen arau guztiak ere beteko ditu, eta bete ezean, kontratista bera izango da arduradun bakarra.

### **19.4 Hirugarrenen baimenak**

EEE/EVEk bere kabuz egin ditzakeen kontratuzko eragiketak eta kudeaketa-lanak alde batera utzita, kontratistak bere lana egiteko beharrezkoak diren baimen eta lizentziak lortu beharko ditu, haiek norbanakoei, elkarteei, enpresei eta erakundeei eskatuz. Baimen horiek lortzeko zerbait ordaindu beharko balitz, diru-kopuru hori ere kontratistak ordaindu beharko du.

## **20 ASEGURUAK**

Kontratistak honakoa seguru hauek eduki beharko ditu:

a) Erantzukizun zibil profesionalaren asegurua egingo du. Aseguru honek EEE/EVErentzat diharduten profesionalak beste bati eragin ahal dizkioten kalte edo zauriak, pertsonalak edo materialak, estaltzeko bermea eman behar du.



Aseguru hori ospe handia duen aseguru enpresa batekin sinatu behar da, eta gutxieneko kalte-ordaina ez da 300.000 euro baino txikiagoa izango.

b) Bidaia asegurua: Ikus Baldintza Teknikoen Txostena (5. Eranskina).

1.- Kontratuari lotutako lanei ekin aurretik, kontratistak egindako aseguruaren kopia edo egiaztagiria emango dio EEE/EVERi, eta horien baldintzei eta indarraldiari lotutako aldaketan berri eman beharko du. Baldintza horiek aldatuko lirateke, behar izanez gero, EEE/EVERen iritziz.

2.- Kontratistak dokumentu honetan aipatzen diren aseguruak kontratatzen ez baditu, edo aseguruak indarrean daudela egiaztatzen dituzten agiriak hogeita hamar (30) egun naturaleko epean aurkeztu ezean, EEE/EVEk aseguru horiek egiaztatzeko agiriak aurkezteko eskatzen duen egunetik kontatzen hasita, ordainduta daudela argi nabarmenduz, EEE/EVEk eskubidea izango du antzeko estaldura izango duten aseguruak kontratatzeko, eta horien kostuak kontratatuaren kontura joango dira eta, hala dagokionean, EEEk kontratistari egin beharreko ordainketatik kenduko dira.

3.- Aseguruaren inguruan kontratistari begira ezarritako eskakizun guztiak azpikontratistei ere eragingo dizkiete, betiere modu egokian eta arriskuen proportzionaltasunaren arabera, eta alor honetan hutsune edo gabeziaren bat izanez gero, EEE/EVERi eman beharko dizkio azalpenak.

4.- Aipatutako aseguru edo polizetan aldaketarik izanez gero, bertan behera edo berritzeak egiten badira, adibidez, kontratistak EEE/EVERi jakinaraziko dio. Era berean, EEE/EVEk hala eskatzen baldin badio, kontratistak aseguruaren kontratuen kopia eta ordainduta daudela egiaztatzen dituzten dokumentuak erakutsiko dizkio. Kontratistak egiaztatzen edo bidaltzen ez baditu eskatutakoa, bere aldetik kontratua ez betetzea lekarke.

5.- Kontratistaren kargura izango diren arrisku, betebehar eta erantzukizunak ez dira mugatzen klausula honetan aipatzen diren aseguruaren kontrataziora. Hori horrela, hartutako arriskuetatik erator daitezkeen betebehar eta erantzukizunak ez dira soil-soilik sinatutako aseguruaren zenbatekoetara mugatuko, EEE/EVERen edo besteren kaltean gauzak gertatuz gero.

6.- Atal honetan aipatutako aseguru guztien kostua kontratistak ordaindu beharko du.

## **21 DATU PERTSONALEN ERABILERA**

Datu pertsonalen erabileratzat honako jarduera hauek hartuko dira: izaera automatizatua izango duten ala ez eragiteka eta prozedura teknikoak, zeinen bidez datuak bildu, grabatu, gorde, prestatu, aldatu, blokeatu eta deuseztatzea ahalbidetzen duten. Halaber, komunikazio, kontsulta, interkonexio eta transferentzien bidezko datu konexioak, baldin eta horiek pertsona fisikoa nor den jakin edo identifikagarria izateko bidea ematen duen edozein informazioa badute.



Kontratuan datu pertsonalen erabilera kontuan hartzen baldin bada, edo enpresa kontratistaren edo azpikontratistaren sarbidea horrelako datuetara aurreikusten baldin bada, honako arau hauek beteko dira:

1. Datuak erabiltzeko arduradunaren jarraibideen arabera erabiliko ditu datuak kontratistak.
2. Erabiliko diren datu pertsonalak kontratu hau gauzatzeko beharrezkoak direnak baino ez dira izango, eta ezin izango dira erabili bestelako xedeekin.
3. Kontratu hau gauzatzeko erabiliko diren datuak ez zaizkio inori emango. Hori horrela, kontratistak konpromisoa hartzen du datu horiek edo datu horiekin eratutako fitxategiak ez jakinarazteko, eskualdatzeko, emateko edo agerrarazteko besteri inolako bidez (ahoz, idatziz, posta elektronikoz, paperez edo sarbide informatikoz); ezta bistartzeko ere.
4. Abenduaren 13ko Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoaren 10. artikuluan xedatutakoa betez, kontratu honen gauzatzean arituko diren kontratistak eta gainerako eragileek isiltasuna gorde beharko dute zenbait daturen inguruan. Isiltasun gordetzeko behar hori kontratua amaitu ondoren ere izango da indarrean.
5. Abenduaren 13ko Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betez, kontratu honen gauzatzearen ondorioz, kontratistak konpromisoa hartzen du datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko, eta horretarako, neurri tekniko, administratibo eta eraketako guztiak hartuko dituela. Ildo horretatik, honako arau hauek beteko ditu:
  - a) Lanei ekin aurretik, enpresa esleipendunak kontratazio-organoari datu hauek eman beharko dizkio: datu pertsonaletara sarbidea izango duten langile guztien izena, abizenak, zereginak eta lana egingo duten lekua. Kontratua gauzatzen den bitartean aldaketaren bat egin behar izanez gero, alta edo baja eman langileren bati, enpresa esleipendunak haren berri emango du astebeteko epean, aldaketa gertatzen den egunetik kontatzen hasita. Enpresa esleipendunak nahiz aipatutako langile horiek konpromisoa hartu behar dute idatziz isiltasun profesionala gordetzeko datu pertsonalez.
  - b) Enpresa esleipendunak segurtasun neurri egokiak hartu beharko ditu, plegu honetan azaltzen diren tratamendu zentroak, ekipoak, lokalak eta programak behar bezala erabiltzeko.
  - c) Kontratu honen xedea diren lanak bukatu eta gero, datu pertsonalak izango dituzten euskarri guztiak itzuliko ditu enpresa esleipendunak, edo horrelako datuak izango dituzten fitxategiak ezabatu edo deuseztatu ditu. Deuseztapena era egokian egingo da, hau da, datuak berreskuratzeke aukerarik ez izateko. Fitxategiak itzultzeko edo deuseztatzeke egiaztapena akta bidez egingo da, enpresa esleipendunaren ordezkariak eta lanen zuzendariak sinatuko duten akta horretan azalduko da ekintza hori.
6. Kontratua indarrean egongo den bitartean, EVE/EVEk kontrolak egiteko eskubidea izango du, ezarritako segurtasun neurriak, eta hala badagokio, neurri zuzentzaileak behar bezala betetzen direla egiaztatzeke.

## **22 LAGAPENA**

Kontratuaren lagapenerako legezko eskakizunei dagokionez, SPKLren 209 artikuluan zehaztutakoa bete beharko da.



Dena dela ere, EEE/EVEk aldez aurretik eta berariaz baimendu beharko du kontratuaren lagapena.

Kontratua ezin izango da laga, berau esleitzeko arrazoi erabakigarriak jatorrizko kontratistaren gaitasun pertsonal edo teknikoak izanez gero.

### **23 HIZKUNTZA BALDINTZAK**

Azterlanak, txostenak, proiektuak eta kontratu honi lotutako gainerako lanak EAEko hizkuntza ofizial bietan egingo dira. Horren barruan sartzen dira software guztien testuzko eta entzunezko interfazeak.

Kontratuak herritarrei zerbitzuak ematea eskatzen duenean, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresaren eta zerbitzuaren erabiltzailearen arteko ahozko komunikazioetan eta komunikazio idatzietan erabiltzaileak aukeratutako hizkuntza erabiliko da.

Berariaz inolako aukerarik egiten ez bada, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak pertsona fisikoei eta juridikoei egiten dien era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak hizkuntza ofizial bietan egingo dira, fakturak eta zirkulazioko bestelako agiriak barne. Hala ere, prestazioaren jasotzaileak edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeko eskubidea eta, ondorioz, nahi duenean eskatu ahal izango du hizkuntza ofizialetako bakar bat erabiltzea.

Administrazio kontratu-egilearekiko harremanetan, normalean euskara erabiliko da. Kontratua gauzatzeari begira, hauxe da "normalean euskara erabiltzea": a) ahozko komunikazioetan, euskaraz dakien langileek euskaraz egingo dute, hasiera baten, kontratua gauzatzeko zereginak direla-eta administrazio kontratu-egilearekin harremanetan jartzen direnean. Administrazio kontratu-egilea euskaraz zuzentzen ari den langile bati eta horrek hizkuntza behar bezala menperatzen ez badu, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak berehala jarri beharko ditu euskara behar bezain ondo dakiten langileak edo bitartekoak, kontratuaren ondorioz administrazioarekin burutu beharreko harremanak euskaraz izan daitezen, eta b) komunikazio idatziak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, salbu eta igorleak eta hartzaileak euskara hutsean egitea erabakitzen badute.

### **24 KONTRATUAREN ARDURADUNA**

Izaera teknikoko erabakiak hartzerakoan, EEE/EVEk kontratuaren arduraduna izenda dezake, kontratistak egindako lanen gaineko aholkularitza eta ikuskapen lanak egin ditzan, eta kontratazio-organoaren edo honek ordezkartzat aukeratzen duen pertsonaren eskumena izango da kontratuaren arduradunak kontratuaren garapenez egindako jarraipenaren ondoriozko erabakiak hartzea.

Era berean, aintzat hartuko ditu Plegu honetan egotzitako zereginak. Kontratazio-organoak kontratuaren arduradunaren esku utz ditzake kontratuaren burutzapenez dituen eskubide eta ahalmenak, guztiak edo batzuen batzuk.

### **25 KONTRATUAREN IRAUNGIPENA/DEUSEZTAPENA**

Amaitu delako, bete delako edo eten delako iraungiko da kontratua.



Kontratua iraungitzeko arrazoiak baldintza-orri honetan, Kode Zibilean eta SPKL-en 206 artikuluan zehazten direnak izango dira. Baita honako arrazoi hauek ere:

- (i) Baldin eta kontratua gauzatzeko garaian, hirugarrenen ekintzen ondorioz, kontratua gauzatzea ezinezkoa balitz ikuspuntu tekniko nahiz ekonomikotik, bidezkoa litzateke, EEE/EVEk egokitzat jotz gero, kontratua indargabetzea, eta ondorioz, kontratistari EEE/EVEk eskatu eta bere horretan gauzatutako lanak ordainduko litzaizkioke soilik, arrazoi honengatik EEE/EVERi kalte-ordaina eskatu edo erreklamazioa egitea bidegabekoa delarik.
- (ii) Kontratistaren berandutza kontratuan adierazitako lanak egiteko epea betetzerakoan.
- (iii) Kontratuan ageri diren gainerako funtsezko betebeharrak ez betetzea.

Ezarritako baldintzen arabera arrazoi hauetako edozein gertatuz gero, EEE/EVE baimenduta egongo da kontratua indargabekotzat jotzeko, eta Plegu honen eta indarreko araudiaren arabera dagokion kalte-galeren ordaina eskatu ahal izango du, betearazpen subsidiarioaz baliatzeko aukera barne, egin gabe geratu diren betebeharrak gauzatu edota lanak gauzatu jarraituz, berez edo egokitzat jotzen dituen pertsona edo enpresen bitartez, kontratistaren kontura.

## **26 JURISDIKZIO ESKUDUNA**

Jurisdikzio Zibileko Epaitegiak izango dira (SPKL-en 21.2 artikulua) kontratu hau prestatzean, esleitzean, interpretatzean, betetzean eta amaitzean sor daitezkeen auziak erabakitzeke eskudunak, eta bi aldeak borondatez jartzen dira Bilboko epaitegi eta auzitegien mende. Era berean, berariaz egiten diete uko erabilgarri izan ditzaketen bestelako foroei.





## 1. ERANSKINA PROPOSAMEN EREDUA

Izen-abizenak: .....  
Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:.....  
Ordezkatzen duen enpresa: .....  
Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea:.....  
Enpresaren bulegoen helbidea:.....

Datu horiek Kontratatorako Oinarrizko Baldintzetan agertzen den eran frogatu ostean, hau adierazten dut:

1. Bidaia agenziaren zerbitzuen kontratua esleitzeko antolatutako LEHIAKETAREN berri emateko, EEE/EVERen Kontratatzailearen Eskakizunean edo Profilean argitaratutako iragarkia ezagutzen dut.
2. Baldintza Teknikoen Pleguak, Oinarrizko Baldintzenak eta gainerako dokumentazioa aztertu eta ezagutzen dut.
3. Kontratatorako Oinarrizko Baldintzen Pleguaren lehen klausulan aipatzen diren legezko eta arauzko testuak ere ezagutzen ditut.
4. Eurekin ados nago eta borondatez, bere osotasunean eta aldaketarik gabe onartzen ditut 2. eta 3. ataletan adierazten diren legezko eta arauzko dokumentu eta testuak.
5. Aipatutako kontratua gauzatzeko konpromisoa hartzen dut, txartel motaren arabera, "fee service" edo emisio zordunketen (€) deskontu hauek eginez

Txartel mota	fee service (€)
Hegazkin nazionala	(...)
Europako/Mediterraneoko hegazkina	(...)
Kontinentez gairidiko hegazkina	(...)
Autobusak/ Trenak / Ferryak.	(...)
Autoen alokairua	(...)
Beste batzuk	(...)

6. Lehiaketa honen arrazoa den kontratua aurrera eramateko konpromisoa hartzen dut, eta une bakoitzean indarrean egongo diren prezioei egingo dien deskontuaren ehunekoa hauxe izango da: (...)

[...]n, 2010eko [ ]aren ...(e)an.

[Enpresaren/lizitatzailearen izena]

Ahalordez



## 2. ERANSKINA

### LIZITATZAILEAREN ARDURA-ADIERAZPENA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOekin KONTRATATZEKO DEBEKURIK EZ DUELA EGIAZTATZEKO

Izen-abizenak: .....  
Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:.....  
Ordezkatzen duen enpresa: .....  
Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea: .....  
Enpresaren bulegoen helbidea: .....  
.....

**ADIERAZTEN DUT:** Egiaztatzen dut ez nik, ez ordezkatzen dudan merkataritza-sozietateak ez dugula urriaren 30eko 30/2007 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 49. eta 50. artikuluetan araututako kontratatzeke debekurik. Halaber, indarrean dauden xedapenekin bat etorriz, egiaztatzen dut enpresak egunear betetzen dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Hori guztia egiaztatzen duten agiriak eta dokumentuak aurkezteko konpromisoa hartzen dut kontratua formalizatu baino lehen, horren esleipenduna izango banaiz.

[...]n, 2010eko [ ]aren ....(e)an.

[Enpresaren/lizitatzaillearen izena]  
Ahalordez



### 3. ERANSKINA BANKU-ABALAREN EREDUA (BEHIN BETIKO BERMEA)

[...] bankuak, (aurrerantzean, “**Bankua**”) eta haren izenean eta ordezkartzean [...], egintza hau egiteko bezainbat aginpide duenak, [...] notarioaren aurrean, [...] protokolo-zenbakiarekin, [...] egunean emandako ahalmenaz baliaturik, eta aldatu ezta kendua ere izan ez dena.

ABALATZEN dio [...] sozietateari (aurrerantzean, “**Sozietatea**”), lehen eskarian eta era solidarioan, .I.F.K.: [...], eta [...] helbidea duenari, [...], [*Erakunde Kontratzailearen izena*] aurrean (aurrerantzean, “**Onuraduna**”), I.F.K.: [...], eta [...] helbidea duena, [...] euroko gehieneko zenbatekoraino (aurrerantzean, “**Bermatutako zenbatekoa**”), [*kontratuaren izena idatz*] xedea duen kontratua modu egokian garatu eta gauzatzeko, [...] datarekin Sozietateak eta Onuradunak sinatutako kontratua, eta Bankuak ezagutzen duela adierazita.

Abalaren baldintzak hauexek dira:

- (i) Bankuak berariaz uko egiten die ondasunen ordenari, eskusioari eta zatiketari; baita defentsa agertarazteko era guztiei ere.
- (ii) Abal honek izaera abstraktua du: beraz, Onuradunak ez du zertan adierazi edo justifikatu bermea gauzatzeko dituen arrazoiak, eta bermearen kontura ordainketaren eskariaren aurrean, Bankuak ezin izango du oztopo edo eragozpenik jarri, Sozietateak jar ditzakeen eragozpenak edozein direla ere.
- (iii) Onuradunak eskatzen duen diru kantitatea ordaindu beharko dio Bankuak bost (5) egun naturaleko gehieneko epean, idatziz edo beste modu batez [...] helbidera egiten den eskariaren egunetik kontatzen hasita.
- (iv) Onuradunak eskatuko duen diru-kantitatea ordainketa batean edo bitan egingo dio Bankuak, onuradunak esango dion eran; betiere Bermatutako zenbatekoa gainditzen ez bada.
- (v) Onuradunak emandako bankuaren kontu-korrontean egingo dira ordainketak, kenketarik gabe, honako arrazoia hauengatik: zergak, eskubideak, karguak, konpentsazioak, erreklamazioak, eta oraingo edo etorkizuneko kenketa edo atxikpenak.
- (vi) Abal honen iraupena mugagabea izango da, Onuradunak baliogabetzeko baimena eman arte, idatzizko adierazpen baten bidez.
- (vii) Berme hau Espainiako zuzenbidearen arabera arautzen da. Gerta daitezkeen auziak erabakitzeke bi aldeak jartzen dira Bilboko epaitegi eta auzitegien mende. Era berean, berariaz egiten diete uko erabilgarri izan ditzaketen bestelako jurisdikzioei.

Berme hau Bermeen Erregistro Ofizialean erregistratu da, [...] zenbakiarekin,

200[ ](e)ko [ ]aren ....(e)an.

[Lekua eta eguna]

[Erakundearen izen soziala]

[Ahaldu(n)aren sinadura]



#### 4. ERANSKINA EKONOMIA JARDUEREN GAINEKO AITORPENAREN EREDUA

Izen-abizenak: .....  
Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:.....  
Ordezkatzen duen enpresa: .....  
Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea: .....  
Enpresaren bulegoen helbidea: .....  
.....

**Nire erantzukizunpean, adierazten dut:**

Tokiko zergei buruz indarrean dagoen araudiaren eta, zehazki, Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren araupenaren arabera, jarraian zerrendatzen diren epigrafeetan zerga horren matrikulan alta ematera behartuta dago enpresa, eta ez du bajarik hartu zerga horretan:

.....	.....	.....
.....	.....	.....
.....	.....	.....
.....	.....	.....
.....	.....	.....

[...]n, 2010eko [ ]aren ....(e)an.

[Enpresaren/lizitatzaillearen izena]  
Ahalordez



## 5. ERANSKINA ZEHAZTAPEN TEKNIKOEN TXOSTENA

### 1.- Zioen adierazpena

Energiaren Euskal Erakundea (aurrerantzean EEE/EVE) energiaren eta meageologiaren alorrean aritzen den erakunde publikoa da. Lanak aurrera eramateko, estatuan zein nazioartean lan-bidaia ugari egin behar izaten du.

Bidaia horiek aldez aurretik planifikatzen badira ere, sarri askotan, beste erakunde batzuetan gertatzen den bezala, urtean zehar izaten diren eustekoek, premiek edo aukerek bultzatuta, hasierako planifikazioa aldatu beharra dago.

Hori dela eta, ezinezkoa da kantitate finko bat ezartzea kontratazio konpromiso gisa; izan ere, urtearen amaieran izan daitekeen bidaia kopurua eguneroko kudeaketari lotutako zenbait faktoreren menpe dago, lehentxeago aipatu dugun moduan.

Nolanahi ere, eta modu orientagarrian, 2009. urtean egindako bidaiei zegokien fakturazioa 109.000 eurokoa (BEZa gabe) izan zen. Hain zuzen ere, kantitate horixe da erreferentziatzat hartzen dena kontratazio honetarako.

Egindako bidaia gehien-gehienak Europar Batasuna osatzen duten estatuetera izan dira, energiarekin zerikusia izan duten beste bidaia batzuk ere egin arren zenbait tokitara.

### 2.- Eskakizunak

Kontratazio hau behar bezala kreditaturik dauden bidaia agentziei zuzenduta dago, eta kaudimen ekonomikoa eta teknikoa modu egokian frogatu beharko dituzte.

Hori horrela, kontratatzerakoan kontuan hartuko diren irizpide nagusiak hauexek dira:

- Estatuan nahiz nazioartean mintzakidetza gaitasun edo ahalmena izatea, bere bitartekoen bidez edo harreman pribilegiatua izateagatik goi mailako hotel, handizkari edo beste agentzia batzuekin, atzerrirako bidaietan gerta litezkeen gorabehereri ahalik eta ondoen aurre egiteko, estaldura eta konponbide aldetik.
- Bidaiaren estaldura eta laguntza egunaren 24 orduetan izatea, egokien irizten dizkion bitartekoak erabiliz.
- Enpresentzako berariazko sail edo atala izatea, zerbitzua egokia emateko behar diren gaitasun, kaudimen eta baliabideez hornitua.

### 3.- Eman beharreko zerbitzuak

#### 3.1. Garraio tituluak

EEE/EVEk eskatuko dituen txartel guztiak enpresa esleipendunak izapidetuko ditu, estatuan zein nazioartean egiten diren bidaietarako eta edozein garraio motatan.



Horretarako honako arau hauek hartuko ditu kontuan:

- (i) Enpresa esleipendunak, gutxienez, bi alternatiba edo bidaia plana, biotako bat merkeagoa, jakinaraziko du, posta elektronikoz, ahalik eta lasterren (ordubeteko epean gehienez ere), EEE/EVEk informazioa eskatzen den unetik kontaktzen hasita.

Alternatiba edo bidaia plan horiek, EEE/EVEk eskatzen dituen ezaugarri eta eskakizunei jarraiki, honako informazio hau eman beharko dute:

- Bidaiaren egunak eta ordutegia
- Ibilbide egokienak
- Hegazkin edo garraio konpainiak
- Tokia izateko aukera
- Erreserbaren ezaugarriak edo baldintzak (berriro jasotzeko, business edo turista, eguna edo ordua aldatzeko malgutasuna, bertan behera uzteko baldintzak eta abar)
- Prezio ofiziala, zergak barne
- Agentzia-gastuak
- EEE/EVEk sinatutako kontratuaren ondorioz, aplikatuko dituen deskontuak
- EEE/EVEk ordaindu beharreko azken prezioa (zergak eta tasak barne)

- (ii) Bidaliko diren alternatiba horiek azken eskaintzat hartuko ditu EEE/EVEk, eta, beraz, ezin aldatuzkoak izango dira, diruari eta baldintzei dagokienez, EEE/EVEk, geroago, besterik erabakitzen ez baldin bada, esleipendunari jakinarazita.

Beraz, EEE/EVEk alternatibetako bat aukeratu ondoren, eta horren berri enpresa esleipendunari eman eta gero, azken honek erreserba egin eta txartelak jaso ditzan, hautatutako alternatibari dagokion prezioa baino ez du ordainduko, eta azkenean bidaiaren prezioa handiagoa bada, ez du EEE/EVEk ordainduko.

- (iii) Baldintza berberetan, EEE/EVEk bere kabuz lortzen baldin baditu abantaila hobeak dituen txartelak, bidaia agentzia esleipendunak lor ditzakeenen aldean, txartela eskuratzeko zerbitzua enpresa esleipendunaren bidez egitetik salbuetsita egongo da EEE/EVE.

Horrelako kasuetan, EEE/EVEren jakinarazpena jaso ondoren, bidaia agentzia esleipendunak berehala jakinaraziko du, faxez edo posta elektronikoz, berak eskaintako prezioa EEE/EVEk lortutakoa baino garestiagoa dela onartzen duen dokumentua; betiere, baldintza berberetan.

Horrelakorik gertatuz gero, EEE/EVEk, SPKLen 196.1 artikuluan xedatutakoa betez, agentzia esleipendunari eskatu ahal izango dio prezioen arteko aldearen zenbatekoaren kenketa, EEE/EVEk bere bitartekoez eta merkeagoa lortu bada bidaia.



Nolanahi ere, aipatutako kontzeptuagatik enpresa esleipendunak eman edo itzuli beharko duen zenbatekoa ez da 7.500 euro baino handiagoa izango, kontratua indarrean egoten den bitartean.

- (iv) Enpresa esleipendunak, turista edo business klasean deskontuak eskuratzeko, Interneteko tarifetara sartzeko aukera izateko edo beste hobekuntzak lortzeko aldera, hegazkin konpainiekin sinatutako akordio edo hitzarmenen kopia aurkeztu ahal izango ditu.

### 3.2 Ostatu hartzea

EEE/EVEk eskatuko dituen ostatu hartze guztien erreserbak kudeatu eta konfirmatuko ditu agentzia esleipendunak, bai nazioan bai nazioartean egingo direnak eta EEE/EVEk zehaztuko dituen kategorien arabera. Horretarako, honako arau hauek hartuko dira kontuan:

- (i) EEE/EVEk informazioa eskatzen duen unetik, agentzia esleipendunak ahalik eta lasterren, posta elektronikoz, faxez edo egiaztatzeko aukera ematen duen beste edozein bidez, gutxienez lau (4) alternatiba edo ostaturen berri emango dio; betiere, EEE/EVEk emandako ezaugarri eta jarraibideak aintzat hartuz.

Alternatiba horiek honako informazio hau eduki beharko dute:

- Hotelaren izena
  - Helbidea / hotelaren kokalekua
  - Izar kopurua
  - Leku kopurua
  - Erreserbaren baldintzak (gela mota, AD/MP/PC, check in eta check out-en ordutegiak eta abar)
  - Erreserbaren ezaugarriak edo baldintzak (itzulgarria, ordua/ordutegia aldatzeko edota egun kopurua luzatzeko malgutasuna eta abar)
  - Prezio ofiziala, tasak eta zergak barne
  - Agentziaren gastuak
  - Aplikatuko diren deskontuak, EEE/EVEekin sinatutako kontratuaren arabera
  - EEE/EVEk ordaindu beharreko azken prezioa (tasak eta zergak barne)
- (ii) EEE/EVEk jasoko dituen alternatibak azken eskaintzat hartuko du, eta, beraz, baldintzak edo prezioa aldatzeko aukerarik gabe, EEE/EVEk iritziz aldatzen ez badu, eta halaxe jakinarazita agentzia esleipendunari.

Hori horrela, EEE/EVEk alternatibetako bat aukeratu ondoren, eta horren berri agentzia esleipendunari jakinarazi eta gero, azken honek erreserba egin ahal izateko, ostatuaren prezioa adostutakoa edo aukeratutakoa baino handiagoa izango balitz, EEE/EVEk ez luke alde hori ordaintzeko inolako betebeharririk.

- (iii) Baldintza berberetan, EEE/EVEk bere kabuz lortzen baldin baditu abantaila hobeak dituen txartelak, bidaia agentzia esleipendunak lor ditzakeenen aldean, txartela eskuratzeko zerbitzua enpresa esleipendunaren bidez egitetik salbuetsita egongo da EEE/EVE.



Horrelako kasuetan, EEE/EVERen jakinarazpena jaso ondoren, bidaia agentzia esleipendunak berehala jakinaraziko du, faxez edo posta elektronikoz, berak eskaintako prezioa EEE/EVEk lortutakoa baino garestiagoa dela onartzen duen dokumentua; betiere, baldintza berberetan.

Horrelakorik gertatuz gero, EEE/EVEk, SPKLen 196.1 artikuluan xedatutakoa betez, agentzia esleipendunari eskatu ahal izango dio prezioen arteko aldearen zenbatekoaren kenketa, EEE/EVEk bere bitartekoez eta merkeagoa lortu badu bidaia.

Nolanahi ere, aipatutako kontzeptuagatik enpresa esleipendunak eman edo itzuli beharko duen zenbatekoa ez da 7.500 euro baino handiagoa izango, kontratua indarrean egoten den bitartean.

### 3.3 Beste zerbitzu batzuk

Halaber, agentziak honako zerbitzu osagarri hauek eman beharko ditu:

- Hala eskatzen baldin bazaio, txartelak eta tiketak kudeatzea. Horrekin batera, bidaiaren xede den lekua edo herriaren inguruko informazioa ematea (kokalekua, ezaugarriak, ohiturak, etab.).
- Autoen alokairua kudeatzea.
- Prezio, kokaleku eta kalitateari lotutako aukera onenen inguruko informazioa eta aholku ematea.
- Aldian-aldian, EEE/EVERi eskaintza, aukera eta sustapenei buruzko informazioa ematea, bidaiak ahalik eta merkeen antolatu edo programatu ahal izateko.
- Euskarri informatikoren bat (webgune bidez) EEE/EVERen eskura jartzea, bidaiak kontsultatzeko, eta hala badagokio, kontratatuzko.
- Agentziaren ustez, zerbitzua baldintza onenetan emateko, diruz eta kalitatez, lagungarriak izan daitezkeen gainerako zerbitzu osagarriak ematea.

## **4.- Zerbitzuen kudeaketa**

4.1 Bidaia agentziaren zerbitzua enpresa esleipendunaren bulegoetan emango da, eta ordutegia 09:00etatik 18:00etara izango da.

Aipatutako ordutegi horretatik kanpo, bidaia agentziak egunaren 24 orduetan zehar eman beharko du larrialdietako zerbitzua, urtean diren 365 egunetan, EEE/EVEk bidaia agentziari eskatzen dizkion zerbitzuetan izan daitezkeen aldaketak, egokipenak edo deuseztapenak egiteko ahalmenarekin, eta bidaiaren inguruan sor litezkeen arazoak edo gorabeherak konpontzeko gai izan beharko da. Hartara, garraio eta ostatuarekin zerikusia duten dokumentu, txartel eta abar emateaz gain, agentziak telefono zenbaki bat emango du, larrialdirik gertatuz gero, deitzeko.

4.2 Enpresa esleipendunak zerbitzua emateko ohiko ordutegia zabaldu edo luzatu ahal izango du, hobekuntzat hartuko dena.

4.3 Bidaia egiteko behar diren txartelak eta gainerako dokumentazioa, zerbitzua eskatzen duenaren izenean emango da (EEE/EVERen langilea), ahalik eta lasterren eta enpresa esleipendunaren kontura.





Nolanahi ere, zerbitzua emateko ohiko ordutegian, erreserba egin eta kontratatzen den zerbitzua baieztatzen edo konfirmatzen denetik ordubetera, eskatuko diren zerbitzuen txartelak, hoteleko bonoak eta beste egiaztagiriri batzuk EEE/EVEk adieraziko duen epean eta lekura bidaliko dira.

4.4 EEE/EVEk hasieran eskatuko dituen prestazioetan aldaketarik, egokipen edo deuseztapenik egongo balitz, enpresa esleipenduna saiatuko da horiek EEE/EVERi eragozpenak ez eragiten, eta horretarako neurri edo erabaki guztiak hartuko ditu. Enpresa esleipendunaren axolagabekeriaren ondorioz sor litezkeen aldaketen edo balio gabetzen gastu gehigarriak enpresa esleipendunak ordainduko ditu.

4.5 kasu guztietan, honako printzipio honen arabera emango da zerbitzua: EEE/EVERentzat egokienak diren alternatibak eta aukerak proposatzea; batez ere, diru aldetik egokienak.

Era berean, erreserba egiten denean, proposatzen den zerbitzuan aldaketarik edo deuseztapenik gertatuz gero, horiek eragin ditzaketen gastu eta kostuen berri eman beharko lioke bidaia agentziak EEE/EVERi.

## **5.- Fakturazioa**

5.1 Enpresa esleipendunak faktura-diseinu bakarra aurkeztu beharko du; bertan, EEE/EVERi eta enpresa esleipendunari dagozkien zergaren datuak (IFZ, izen osoa eta helbidea), faktura zenbakia eta jaulkitzen den eguna azalduko dira. Horietaz gain, honako informazio osagarria eduki beharko du:

### Garraio tituluen kasuan soil-soilik:

- Erabiltzailearen izena eta abizenak
- Abiapuntua eta helmuga (joan/etorri)
- Bidaiaren eguna eta ordutegia
- Tarifa mota eta deskribapena
- Garraioaren zenbatekoa
- Enpresa esleipendunaren zerbitzu gastuen zenbatekoa
- Dagozkion zergak
- Fee service
- Zenbatekoa, GUZTIRA

### Ostatu zerbitzuen kasuan soil-soilik:

- Erabiltzailearen izena eta abizenak
- Herria
- Hotela / hotel taldea
- Bertan emango dituen egunak/ gauak
- Tarifa mota eta deskribapena
- Erreserbaren baldintzak (AD/MP/PC,...)
- Baldin badago, ostatuaren beste zerbitzu batzuk edo behar bezala azalduko aparteko zerbitzuak
- Ostatuaren zenbatekoa
- Enpresa esleipendunaren zerbitzu gastuen zenbatekoa
- Dagozkion zergak
- Deskontuak hoteletan
- Zenbatekoa, GUZTIRA



Garraio + ostatua izango duten zerbitzuen kasuan soil-soilik (faktura bakarrean):

*Garraioa*

- Erabiltzailearen izena eta abizenak
- Abiapuntua eta helmuga (joan/etorri)
- Bidaiaren eguna eta ordutegia
- Tarifa mota eta deskribapena
- Garraioaren zenbatekoa
- Enpresa esleipendunaren zerbitzu gastuen zenbatekoa
- Dagozkion zergak
- Fee service
- Garraioa, GUZTIRA

*Ostatua*

- Herria
- Hotela / hotel taldea
- Bertan emango dituen egunak/ gauak
- Tarifa mota eta deskribapena
- Erreserbaren baldintzak (AD/MP/PC,...)
- Baldin badago, ostatuaren beste zerbitzu batzuk edo behar bezala azaldutako aparteko zerbitzuak
- Ostatuaren zenbatekoa
- Enpresa esleipendunaren zerbitzu gastuen zenbatekoa
- Dagozkion zergak
- Deskontuak hoteletan
- Ostatua, GUZTIRA

GUZTIRA *garraioa* + GUZTIRA *ostatua*: GUZTIRA FAKTURA

5.2 EEE/EVEk fakturazioaz egin dezakeen kontrola edo jarraipena errazteko asmoz, enpresa esleipendunak fakturazioari lotutako datuak emango ditu hileroko, honako datu hauek azalduz:

- Eragiketen guztizko zenbatekoa
- Produktu bakoitzeko zenbatekoa (garraioa, ostatua, etab.)
- Produktuko guztizko eragiketa kopurua eta kostu zentroa
- Hegazkin, tren, autobus, etab.en txartelen jaulkipenen zordunketa

5.3 Nolanahi ere, EEE/EVEk egoki deritzon unean informazioa eska dezake enpresa esleipendunak emango dizkion zerbitzu guztiez, eta azken honek eman beharko dio informazio hori.

**6.- Aseguruak**

Enpresa esleipendunak EEE/EVErentzat kontratatuko dituen bidaiak gutxieneko estaldura hau izango dute bidaiariarentzat:

- Istripu aseguruak: 750.000 euro, heriotza edo ezintasun iraunkorra gertatuz gero.



- Bidaiaria Euskadira ekartzea munduko edozein tokitatik; gaixo jarri, istripua izan edo heriotza gertatuz gero.
- Ekipaje asegurua: 1.200 euro.

Enpresa esleipendunak osasun zerbitzuak ematen dituen konpainia batekin poliza aseguru egingo du, bidaiari bakoitzaren estaldura ziurtatzeko osasun aldetik atzerrian, eta bidaiaren erreserban adieraziko den joan-etorriaren denbora izango da indarrean.

Aipatutako aseguru horien gutxieneko estaldura edo baldintzen hobekuntzak aurkeztuko dituzten proposamenak, bidezkoa denez, plegu honetako **karatularen "O"** atalean ezarritako irizpideen arabera balioetsiko dira.